

### Bilbon, 1995eko abenduaren 29an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
 Knörr, E., idazkaria  
 Arana, J.A., diruzaina  
 Altuna, P.  
 Azkarate, M.  
 Charritton, P.  
 Davant, J.L.  
 Diharce, X.  
 Goenaga, P.  
 Irigoyen, A.  
 Kintana, X.  
 Krutwig, F.  
 Larre, E.  
 Oihartzabal, B.  
 Ondarra, P.  
 Peillen, Tx.  
 Salaburu, P.  
 San Martin, J.  
 Sarasola, I.  
 Satrustegi, J.M.  
 Villasante, L.  
 Lizundia, J.L., idazkariorde-kudeatzailea

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1995eko abenduaren 29an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren kideak etorri dira. P. Zabaletak ezin etorria adierazi du.

#### Agiriak

Azaroko bi agiriak onartu dira, goizekoan zerbait zuzendurik eta gehiturik.

#### Goresmenak

Gaietan sartu baino lehen, euskaltzainburuak goresmenak eman dizkie honako jaun-andereei: Pello Salabururi, Euskal Herriko Unibertsitateko errektore izendatu berri baita, eta Miren Azkarateri, unibertsitate bereko errektoreorde; Endrike Knörr, Euskal Herriko Unibertsitatean katedra lortu duelako, eta Karlos Otegi Literaturatu batzordekideari, irakasle titular irakastokia eskuratzeagatik, halaber Euskal Herri Unibertsitatean.

#### Hiztegi batua

Azaroko batzarrean erabaki gabe gelditu ziren zenbait hitz, *a* letraz hasten direnak, aztertu dira lehenik. *Azazkal* / (*h*)*atzazal* / *azkazal* / *atzazkal* formetarik zein proposa daitekeen eztabaidatu da. *Azazkal* formak bildu ditu bozketan 15 boto. Bigarren mailan ezarriko dira *atzazal* eta *azkazal*.

*Aterki* hitzaz ekarri du argibide gehiago I. Sarasolak batzordekideak, eta zenbait euskaltzainek hitz horrek duen hedadura berretsi. Hiztegi honetan sartuko da, eta *e* letra aztertzean *euritako* hitzak izan behar duen tokiaz eztabaidatuko da. X. Kintanak oroitari du *Merkatalgo izendegia*-n *euritako* eta *euritakodenda* ageri direla. Orduko idazkaria zen Juan San Martinek esan du hiztegi hura oso bestelakoa zela.

A. Irigoyenek berri du *arkibo* formaren aldeko bere iritzia. Forma horren alde mintzatu da X. Kintana ere. J. Haritschelharren ustez, gaztelania eta frantsesa batera

datozelarik, euskaraz ere artxibo proposatu behar da. Bozketa egln da eta 16 boto jizan ditu artxibo formak.

Zenbait aldaketarekin onartu da gero *-Ari (-lari) atzizkiaz* deritzan txostena, 45.a. Besteak beste, zazpi lerro kendu ditu batzordeak berak. X. Kintanak proposaturik, *hezle* ere aipatuko da, *hezitzaille*-ren ondoan. A. Irigoyenek esan du berrekailuen kontua ez dela hain estua: *politiko, ekonomista* e.a. esaten baita. I. Sarasolak erantzun du pianista, kritiko eta halakoak ezin direla baztertu. X. Kintanak eta E. Larrek *ekonomialari* eta antzekoak defendatu dituzte. P. Salabururen iritziz, espreski aipatu behar da *ekonomista* eta *politiko* zilegi direla. B. Oihartzabarek adierazi du ez dela erraza jakitea hitza nazioartekoa den ala ez, maiz aski inguruko hizkuntzetan bide bera hartu ez delako (*gramático, grammarien, Grammatiker...*). A. Irigoyenek iradokirik, *\*elizari* kenduko da, *-iri* atzizkiarekin ez nahasteko (cf. *Elizari* deitura), eta *\*ardolari* ezarriko. J.M. Satrustegik *-gile* atzizkia ere badela oroitarazi du.

Ondoren, *-Ari / -ario atzizkiez*, 46. zenbakia daramana, eztabaldatu da. X. Kintanak eta E. Knörrek horren gaineko beren oharrak irakurri dituzte, *-ari* formaren alde. X. Kintanaren ustez, *-ario* izenatarako onetsiz gero (*enpresario, enpresari-* ren kaltetan) gaztelaniarekiko morrontza aitortuko luke euskarak. Gainera, Mitxelena-ren Iritzia gogoraz du, *Eskola Unibertsitaria* deitura egokietsiz. Bestalde, *-ario (notario, e.a.)* onartzean genero-marka adierazten da neurri batean. E. Knörrek esan du oso garbi dagoela izenatarako *-ari* atzizkiak azken 25 urte honetan izan duen hedatzea, baita idazle hoberenetan ere. I. Sarasolak erantzun du *enpresari enpresario* bezain erdarakada dela, eta *-ario* ez dela maskulinoa ez femeninoa. A. Irigoyenen ustez, *-ario* oso sustraitua dago. B. Oihartzabarek proposamenaren oinarria azaldu du, hots, forma hedatuenei baia eman zaie. Tx. Peillenek eskatu du argiago oharzaraztea erdarazko *-ario* horri ez dagoekiola beti euskarazkoa (adib., *problema sanitario = osasun arazoa* edo). Horrela egingo da. E. Larrek galdetu du ezin denentz ezarri *-ari* forma euskaldunagoa dela. Eztabaida luzatzen zela ikusirik, euskaltzainburuak gaia urtarrileko batzarrean erabakitzea proposatu du. M. Azkaratek, aldiz, testua urtarrilean ekartzea eskatu du, baina egungo batzarrean erabakirik. Azkenean, testuan aldaketa handiak eginik eta proposamena puntu bakarrera bildurik bozketa egin da, emaitza honekin:

Bai	18
Ez	2
Zuri	2

X. Kintanak eta E. Knörrek kontrako botoa haiena izan dela adierazi dute.

49. txostenean zintzilik gelditu ziren bi puntu erabaki dira ondoren: *Antartika* eta *Itsaso Antartikoa*.

Hurrena, *Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)* izeneko txostena, 52.a. aztertu da. Garaiz eta idatziz iritsi diren oharrak irakurri dituzte X. Kintanak eta E. Knörrek. Kintana jaunak *mendigune* proposatu du, erdarazko *massif/macizo*-ren ordain; izen bereziaren ondoan *mendia(k), ibaia*, e.a. ezartzea, komeni denean (*Karpatoak / Karpato mendiak*, adibidez); *Bizkaiko Golkoa* sartzea; *itsaso* eta beste beti letra larriz idaztea. E. Knörrek *Erdialdeko mendiak* proposatu du, *Massif central* delakoa itzultzeko. *Massif central* eta *Erdialdeko mendigunea* erabaki da azkenean. Izenotako letra larrien arazoa xehekiro ikertuko da beste batzar batean.

A. Irigoyenek *Pirineoak* eta *Mediterraneo* formak defendatu ditu; haren ustez, *Pirinio* eta *Biarno* berrikeriak dira; gaskoinek *Bearno* esaten dutela kontuan hartu behar da. *Ozeano Pazifikoa*-ren alde mintzatu da berebat, *Barea kentzea* proposatuz, eta *Kaspiar* izena dela eta, aditzera eman du *-(t)ar* atzizkia pertsoneri bakarrik egotz dakiekeela. E. Knörrek erantzun du *Pirinio* forma hirurehun urteko berrikeria dela gutxienez Tx. Peillenek esan du gaskoieraz *Beàrn* dela forma arrunta, eta E. Larrek euskaraz beti *Biarno* erabiltzen dela esan du. Bestalde, E. Knörrek elia P. Salaburuk beren kexa agertu dute idatzizko oharrek batzarrean onartzeagatik. I. Sarasolak, A. Irigoyeni erantzunez, esan du ez dela egia -ar forma pertsoneri bakarrik egotz dakiekeela. Ildo beretik, X. Kintanak esan du errusieraz eta georgieraz -ar atzizkiaren parekoak erabiltzen direla. B. Oihartzabalek *Meuse*, *Moselle* eta abar nahiago luke, ezen ez *Mosa*, *Mosela* eta antzekoak, gaztelaniatikoak. haren ustez, eta galdetu du ingelesez nola deitzen diren. E. Knörrek forma horien euskararen aldetikako egokitasuna aldeztu du (azkeneko -a, batez ere), eta Ausonioren *Mosella* ezaguna oroitarazi. Gainera, Europako toponimiari datxekolarik ingelesaren bidea azaldu du, hots, gehienetan frantsesetik dagoen-dagoenean hartzea (*Meuse*, *Bruges* eta beste). Aipatu du, azkenik, orain arteko irizpide nagusia, departamenduen izenetan bertako forma gordetzea (*Rhône*), baina eskualde. ibai eta antzeko izenetan ez (*Rodano*, *Lorrena*).

Bozketan batzordearen proposamena ontzat hartu da, *Mediterranio* eta *Itsaso Barea* izan ezik, *Mediterraneo* eta *Pazifiko* onartu baita gehiengoz. Azken izen honetaz Kintana jaunak erabakia berrikustea eskatu du. Ondorioz, bi formak onetsi dira (*Barea eta Pazifikoa*).

### 1996ko batzar egutegia

1996ko batzar egutegi proposamenaz iritsi diren bi oharrek, M. Azkaraterena eta P. Salabururena, aztertu ditu Zuzendaritzak azken bilkuran. Proposamen berria irakurri du J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak eta aho batez onartu da.

### Eskuartekoak

Euskaltzainburuak euskaltzain urgazleak aurkezteko epea otsailaren 20a arte irekia izango dela aditzera eman du. P. Charrittonen aburuz, literaturazale gehiago behar ditu Akademiak. J. Haritschelharrek esan du batzordeetan lanean ari diren batzuk gogoan izan behar direla, idazleez gain. E. Knörrek oroitarazi du oso komeni dela urgazlegaiak aurkeztu eta izendatzean dituzten eginbideak adieraztea.

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzaz urteoro antolatzen dituen literatura sarien epaiaren berri eman da. Txomin Agirre saria L.M. Mujikak irabazi du, *Hiru egun Larburun* deritzan eleberriaz. Toribio Alzaga saria Juan Jose Olasagarrek eskuratu du. Hegazti errariak teatro-lanaz. Felipe Arrese Beitia sarian Jose Felix Azkona gertatu da irabazle, *Artius* olerki bildumaz. Mikel Zarate saria Pako Sudupek eraman du, *Nemesio Etxaniz biografia* saiakeraz.

Denborarik ezagatik, X. Kintanak ekarririko bi proposamenak, *epaizinekoak* izenez bata eta euskal gizarteko arazoz bestea, mahai gainean gelditu dira, urtarrileko batzarrera arte.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria